

# Asisko gutuna

2021eko abendua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

158. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Esaten dutenez, beldurrak ez dira aholkulari onak; eta horrela da, bai. Hala ere, bizitzan birkokatzen lagungarri gerta dakizkiguke heldutasun eta jakinduria handiagorako bidean.

## Gogoetarako gaia

### *Beldurrak*

Zenbat beldur daramagun gurekin. Gazteak eta energia handikoak bagara, bizitza kontrolatzen dugun ilusioa bizi dugu. Egia da dena ez dagoe-la gure kontrolpean, baina, lortzen ditugun esparruetan, geurea da agintea. Garrantzitsua da sentazio hori gure bizitzako unereren batean bizi izana; gure berezko gaitasunak garatzeko gai izan garen seinale da, baita bizitzan moldatzen ikasi dugunaren seinale ere.

Hala ere, adinagatik, gaixotasunen batengatik edo energiak gutxitzen direnean gure mugetara hurbiltzen ari garela bizitzea tokatu zaigulako, beldurrak agertzen dira. Hauetariko batzuk berriak dira, inoiz ez esperimentatuak, hala nola mehatxu baten aurreko gauzaeza, baliaezintasuna, heriotza... Beste batzuk jada ezagunak dira, eta gainditutzat jotzen genituenak, hala nola haurtzaroko konplexu hura, depresio-esperientziaren bat, aitortu ezinezko joera hori... Gainera, bizitzako edozein esparrutan ager daitezke: pertsonala, soziala, harremanetan, fami-

lian, fedean. Beldurrak beti egon dira, daude eta egongo dira gurekin; gure historiaren eta eraketaren zati dira.

Beldurrak bizitzeak, erabakitzeke kontzientzia menderatzen ez diguten bitartean, bizitza eta bere gauzak hobeto kalibratzen lagun diezagukete. Apalago egiten gaituzte, beldurra sortzen diguna eta gu geu garena bereizten lagun diezaguketelako. Alegia, gure beldurrak baino gehiago gara. Beldurrek, beti gogaikarriak eta batzuetan mingarriak izanik, gehiago behartzen gaituzte konfiantzaz bizitzera, guztia menderatuz bizitzera baino.

Beldurrak, blokeatzen ez bagaituzte, akuilu izan daitezke oinarriak bilatzeko gure funtsezko konfiantzak babeste arren. Ez da gauza bera bizitzak zentzua duela ala zorte itsuan sinestea. Agian, Jainkoarekiko harremanean oinarritzeko eta harreman hori lantzeko bidea ere izan daiteke. Beldur naiz, baina bihotza ez dut darka, bai baitakit norekin fidatu naizen.

## Ebanjelio pasartea: Mt 8,23-27

Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu egin zioten.

Bat-batean, ekaitz gogorra sortu zen aintziran, eta uhinek txalupa ia azpian hartua zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleek hurbildu eta esnatu egin zuten, esanez:

–Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!

Hark esan zien:

–Zergatik zarete hain beldur, sinesmen gutxikook?

Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta aintzirari, eta dena bare-bare gelditu zen. Ikasleek, harriturik, honela zioten: «Nor ote dugu gizon hau, esana egiten baitiote haizeak eta aintzirak ere?»

## Frantziskotar espiritualtasuna

Santua kontsolamendu handia hartzen zuen Jainkoaren bisitaldiekin, horiek Ordenaren oinarriek beti sendo iraungo zuten ziurtasuna ematen baitzioten, promes hau ere egin zitzaion: zalantzarik gabe, galtzen zirenen ordeaz aukeratu berriak izango zirela.

Etsenplu txarrak zirela-eta asalaturik zegoen batean, kezka horrekin otoitzera jo zuen, eta astinaldi hau hartu zuen Jaunagandik: «Zertan kezkatzen zara, gizontxo hori? Agian nik neure Elkartearen artzain egin ote zaitut, haren zaintzaile nagusi Neu naizela ahantz dezazun? Horregatik, hain zuzen, aukeratu zaitut zu, gizon simple hori, nahi dutenek nik zuzen egingo ditudan eta besteek imitatu behar dituzten egintzei jarrai diezaiten. Neuk deitu dut, neuk gordeko dut eta bazkatuko, eta galtzen direnen lekuan beste batzuk jarriko ditut, eta oraindik sortu ez badira, neuk sortaraziko ditut. Ez kezkatu, beraz, eta saia zaitez zeure salbamena lantzen, zeren, Elkar-tea hiru anaia bakarrik izateraino gutxituko balitz ere, tinko iraungo du beti nire babesari esker».

Orduetik aurrera esan ohi zuen anaia santu bakar baten bertuteak erdipurdikoen andana handia gaintitzen duela, argi-errainu bakar batek ilunpe beltzenak desegiten dituen bezala. (2Zel 158)

## Otoitza

Begira iezadazu Zuk,  
Jesus Nazaretoko horrek.  
Senti dezadala nik  
Nire gainean pausatzan  
Zure begirada librean,  
sinagogan sortutako  
loturarik gabekoa  
alde batera baztertzen nauen  
eskakizunik gabekoa,  
hotz uzten nauen  
distantziarik gabekoa,  
erosten nauen  
kodiziarik gabekoak  
Zure begirada  
pausa dadila  
nire zentzumenetan,  
eta sar dadila  
Zuk Zeuk erein  
eta nire sorreratik  
zure zain dagoen

eta ezezaguna dudan  
iritsezineko  
zokoetaraino,  
eta erne dadila nire etorkizuna  
lurperatu eta elikatzen nauen  
lur xehatua  
isilean apurtuz  
hostoen berdearekin.  
Utz nazazu sartzen  
Zure barnean,  
Zugandik  
begira nadin  
eta senti dezadan  
nola desegiten diren  
ni desitxuratzen  
eta hausten nauten  
norberaren eta besteen  
zenbait begirada.

Benjamín González Buelta, jl.

## Gutuneko azken hitzak

Beldurrez beterik dagoen bihotzak bat ere itxaropenik gabe egon behar du.

(Fray Antonio de Guevara (1480-1545) espainiar idazle eta elizgizona.)

## 2021eko abenduko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1. Mt 15, 29-37	8. Lk 1, 26-38	15. Mt 7, 19-23	22. Lk 1, 46-56	29. Lk 2, 22-35
2. Mt 7, 21. 24-27	9. Mt 11, 11-15	16. Lk 7, 24-30	23. Lk 1, 57-66	30. Lk 2, 36-40
3. Mt 9, 27-31	10. Mt 11, 16-19	17. Mt 1, 1-17	24. Lk 1, 67-79	31. Jn 1, 1-18
4. Mt 9, 35-10, 1. 6-8	11. Mt 17, 10-13	18. Mt 1, 18-24	25. Jn 1, 1-18	
5. Lk 3, 1-6	12. Lk 3,10-18	19. Lk 1,39-45	26. Mt 2, 13-15. 19-23	
6. Lk 5, 17-26	13. Mt 21, 23-27	20. Lk 1, 26-38	27. Jn 20, 2-8	
7. Mt 18, 12-14	14. Mt 21, 28-32	21. Lk 1, 39-45	28. Mt 2, 13-18	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Abenduko otoitza hilaren  
30ean izango da.